

10. Laborategia

Gaur funtzioak landuko ditugu. Ariketa bakoitza botoi ezberdin batean inplementatu eta datuak eskatzeko eta pantailaratzeko, `InputDialog()` eta `MsgBox()` erabili.

1. Klasean egindako `Abs()` funtzioa erabiliz, egin programa bat erabiltzaileari zenbakiak eskatzen dizkiona haien balio absolutuak pantailaratzuz. Erabiltzaileak 0 idaztean bukatuko da programa.
2. Idatzi funtzio bat bi puntuen arteko distantzia kalkulatzeko duena (puntu bakoitzak bi dimentsio dituela), eta gero egin programa bat bi puntu eskatuta, haien arteko distantzia kalkulatu eta pantailaratzeko duena. Hiru aldiz jarraian egingo da.

Adibidea:

"Eman 1. puntuaren x koordenatua"	15.4
"Eman 1. puntuaren y koordenatua"	6.3
"Eman 2. puntuaren x koordenatua"	5.4
"Eman 2. puntuaren y koordenatua"	6.3
"Distantzia= 10"	

3. Egin funtzio bat zenbaki baten faktoriala kalkulatzeko duena eta gero programa bat funtzioa probatzeko duena. Konprobatu kasu hauek:

$0! = 1$
 $1! = 1$
 $3! = 6$

Oharra: zenbaki handiekin failorik ez edukitzeko, integer erabili beharrean long erabili.

4. Egin funtzio bat karaktere-kate bat emanda, karaktere-kate bera buelta emanda itzultzen duena. Adibidez, sarrerako katea "kaixo" baldin bada, "oxiak" itzuliko du. Behin funtzioa eginda probaezazu programa batez. Programak hitzak eskatuko dizkio erabiltzaileari eta buelta emanda pantailaratzeko ditu. "" hitz hutsa idaztean, programa bukatuko da.

Adibidea:

"Eman hitz bat"	"kaixo"
"oxiak"	
"Eman hitz bat"	"agur"
"ruga"	
"Eman hitz bat"	""